

# **GRADU AMAIERAKO LANEN ETA MASTER AMAIERAKO LANEN PROPOSAMENA 2022/23 IKASTURTE AKADEMIKOA CAMPUS BIZIA LAB PROGRAMA**

---

## **Gradu Amaierako Lana / Master Amaierako Lana**

### **Izenburua**

Kulturarteko hezkuntzaren eta euskararen erronkak hezkuntza komunitatean (5 GrAL)

### **Deskribapen laburra (gehienez 300 hitz)**

Gizarte Hezkuntzako GrAL hauek "EHezi i3: GrALak euskal hezkuntza hobe baten alde" diziplinarteko proiektu kolektiboaren barnean txertatzen da. Egitasmo honen helburu nagusia guztiontzako kalitatezko hezkuntza ahalbidetzea da (4.GIH).

Hau lortzeko zenbait erronkari aurre egin beharra dago, besteak beste, aukera berdintasuna errealitate bat bilakatu behar da, hortaz, orain arte sortu izan diren egoera batzuk saihestu behar dira, kasu honetan segregazioa. Segregazioa sortzen da ikasleak modu ezberdinean banatuta daudenean eskola ezberdinetan zenbait aldagaien arabera: familien egoera sozioekonomikoa, ikaslearen edota honen familia kideen jaiotza-herrialdea edo talde etniko-kultural bateko kide izatea. Eskola segregazio dinamikek, beraz, bazterkeria eta aukera berdintasun eza sortarazten dituzte.

GrAL hauen bitartez ikastetxe desberdinen errealitatea aztertuko da bertako komunitateak inklusioaren bidean proposatzen den kulturarteko hezkuntza nola ulertzen duen eta honen inguruan lanean ari diren aztertuz, baita ikasleen hizkuntza erabileraren inguruko ikerketa edo berrikuntza proposamenak bideratu ere. Horretarako metodologia kualitatiboak erabiliko dira eta tokiko hezkuntza komunitatea aztertuko da besteak beste.

Proiektu honen bidez, EHezi i3 komunitateak dinamika sozialetan txertatu, EAEko hezkuntza lege berriarekin irekitako eztabaidan ebidentzietan oinarritutako ekarpenak egin, eta praktika guneetan berrikuntza pedagogikoa gauzatzeko aukera sustatu nahi du.

### **Ikaslea aukeratzeko hautaketa-irizpideak**

Gizarte Hezkuntzako Gradu ikasleak. Etorkizun hurbilean gizarte hezitzaile izango den heinean gai hauen inguruko interesa daukaten pertsonak.

## **Campus**

Bizkaia eta Gipuzkoa

## **Ikastegia (Fakultatea/ Eskola)**

Bilboko Hezkuntza Fakultatea

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (Donostia)

## **Titulazioa**

Gizarte Hezkuntzako Gradua

## **Elaboraziorako eta defentsarako hizkuntza**

Euskara

## **Irakasle arduraduna**

Ion Andoni del Amo

Eider Saragueta

Oihana Leonet

## **Posta elektronikoa**

[ion.andoni@ehu.eus](mailto:ion.andoni@ehu.eus)

[eider.saragueta@ehu.eus](mailto:eider.saragueta@ehu.eus)

[oihana.leonet@ehu.eus](mailto:oihana.leonet@ehu.eus)

## **Campus Bizia Lab (CBL) proiektua**

EHezi i3: proiektua: GrALak euskal hezkuntza hobe baten alde

## **CBL proiektuaren webgunea**